



Guraso/tutore agurgarri hori:

Gutun honen bitartez, datorren asteartean, hilak 12, antolatu dugun batzar baten berri eman nahi dizugu. Batzarrean eskola kirola berrantolatzeke egin den proposamena aurkeztuko zaizue.

Eskola kirolaren gaineko kezka eta hausnarketa ez da gaur goizeko kontua. Usurbilen eskaintzen den Eskola Kirola berrantolatzeke premia sentitu dute hainbat gurasok eta hezitzailek, eta egungo eredua aztertu eta proposamen berritzailea diseinatu dute. Bi urtez aritu dira hausnarketa hori egiten, eta proposamena taxutzen. Honako hauek hartu dute parte zeregin horretan: guraso batzuk, Udarregi Ikastolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak, Eskola Kiroleko koordinatzaile eta monitoreak, Ikastola Elkartean aisialdian lan egiten duen pertsona, unibertsitateko irakasle bat, kudeaketan aditu bat, genero-gaietan aditu bat eta inklusioaren gaian aditu bat.

Hain zuzen, egindako gogoeta eta egitasmo berria partekatzen aritu dira han eta hemen, eta proposamen horretara bildu gaituzte Usurbilgo Udala, Udarregi Ikastola eta Noaua! Kultur elkartea. Eskola kirola, eskolaz kanpoko jarduera soila izatetik, herri-egitasmo bat izateko planteamendua egin dute, eta herriko elkarte eta Udalaren arteko elkarlana sustatu. Umea erdigunean jarri, eta kirola, ariketa fisikoa, jolasa eta aisialdia uztartzeko egitasmoa landu dute. Egitasmoa gorpuzten aritu dira eragile guztiak elkarlanean orain arte, eta datorren ikasturtean bertan jarri nahi dute abian. Aurrez, baina, gurasooi aurkeztu nahi dizuegu, zuek ere proiektu honen parte izan zaitezen. Proposamena aurkezten eragile guztiak izango gara: hezitzaileak, ikastola, Noaua! Eta Udala. Azken batean, lehen hazia guraso eta hezitzaileek jarri badute ere, elkarlanari lotu, eta guztiek, bakoitzak beretik emanez, gorpuztu da egitasmoa. Orain gurasook izango duzue hitza.

Bilera Eguna: 2018ko ekainaren 12an

Ordua: 17:30ean

Tokia: Sutegiko aretoan

Bilerara deituak: 2018/2019 ikasturtean LH1-LH2-LH3-LH4an izango diren ikasleen guraso/tutoreak.